



Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak lankidetzeta-hitzar- men bat sinatu du Banco Sabadellekin.

Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak eta Banco Sabadell bankuak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute. Haren bidez, entitateak erakunde profesionalaren eta gure elkargokideen eskura jarriko ditu finantza-arloko produktu eta zerbitzu batzuk, pertsonalizatuta eta lehentasunezko baldintzetan, haien ekonomikoa profesionalera eta pertsonalera egokituta; abantaila horiek hurbileko senide eta enplegatuengana ere zabaldu ahal izango dira.

Bestalde, Abokatuen Elkargoak eskaintza handituko du, gure elkargokideek finantza-zerbitzu oso lehiakorak eta finantza-arloko aholkularitza pertsonalizatua erabiltzeko aukera izan dezaten diruz lagundutako esparruetan, kanpo-merkataritzan, finantzaketan, factoringean, confirmingean, saltokiko puntuetan eta merkataritza elektronikoa, besteak beste.

Eskaintza global bat da, aurrezki eta inbertsioko, finantzaketako eta zerbitzuetako produktuak barne hartzen dituena. Honako hauek gailentzen dira, besteak beste: Elkargoko kuotaren % 10eko hobaria, gehienez 50 eurora arte. Cuenta Expansión Negocios-PLUS kontua autonomo eta enpresen, bulego profesionalen eta enpresa txikien neurri bereziki diseinatutako pakete bat da, hainbat abantaila barne hartzen dituena:

– BS Online bidezko transferentzia nazionalak eta doako txeke-sarrerak, BM Online eta BS Mugikorra doan, kreditu- eta zordunketa-txartelak doan, eta saltokiko puntuetarako baldintza bereziak. Eta ekonomia pertsonalerako eta langileentzako, Cuenta Expansión-PRO, nomina eta diru-sarrera pertsonalak helbideratzeko.– Komisorik gabeko kontua, doako txartelak, nominaren aurreraki-





ICAGI

ILUSTRE COLEGIO DE LA ABOGACÍA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUA

La JUNTA informa / BATZORDEA informatzen du

na baldintza onuragarrietan, eta interes-tasa hobaridunak dituzten aurrezki- eta inbertsio-produktuak.

Akordioa Lourdes Maiztegui dekanok eta Banco Sabadell bankuko eskualde-zuzendari Jon Mikel Kortak sinatu dute. Ekitaldian izan dira, halaber, Elkargoko Gobernu Batzordeko finantza-arduradun Pedro Calparsoro eta Banco Sabadelleko Kolektiboaren erakunde-arduradun Ion Vergara.

Lourdes Maiztegui dekanoarekin ustez, hitzarmen honen bidez, "finantza-erakundeak gure elkargokideen (eta haien lehen mailako senide eta enplegatuen) eskura jarriko du lehentasunezko finantzaketa, baita bankuko hainbat produktu eta zerbitzu ere, baldintza onuragarrietan; hori guztia gure jardueraren garapena hobetzeko eta hurbileko harremana eskaintzeko helburuarekin, eta, aldi berean, kudeaketak arinagoak eta pertsonalizatuagoak izan daitezzen".

Hitzarmenean zehazten den bezala, lan-bilerak deituko dira bi aldeetara, alde baten edo bestearen proposamenak aztertzeko. Izan ere, bi erakundeek asmoa da eskaintza lehiakorra lortzea eta mantentzea, Abokatzeko kolektiboaren beharretara egokitua, hari bideratuta baitago hitzarmena.

Jaso ezazue besarkada bat.

